

AGINTARIAK ETA LANGILEAK

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGU SAILA

415

EBAZPENA, 2026ko urtarrilaren 15ekoa, Eustat-Euskal Estatistika Erakundeko zuzendariarena, zeinaren bidez izendatzen baita Produkzio eta Analisisiko zuzendariorde lanpostua betetzeko.

Aztertu da Produkzio eta Analisisiko zuzendariorde lanpostua betetzeko deialdia, Zuzendaritza Nagusi honen 2025eko azaroaren 18ko Ebazpenaren bidez, 2025eko abenduaren 4ko EHAAn argitaratuta (235. zk.).

Eskabideak aurkezteko epea amaitu da, eta lanpostu horretan jarduteko hautagaiek aurkeztutako dokumentazioa aztertu da, baita haien baldintza profesionalak curriculum vitaean jasotako merezimenduen arabera baloratu ere.

Aurkeztutako dokumentazioa aztertuta, Haritz Olaeta Goiriena jauna aproposa dela deialdiko lanposturako eta bertan jarduteko trebakuntza egokia duela ikusi da.

Aurreko guztia dela-eta, Zuzendaritza Nagusi honek

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Haritz Olaeta Goiriena jauna izendatzea Eustateko Produkzio eta Analisisiko zuzendariorde.

Bigarrena.– Jaso beharreko ordainsaria 29. mailako Produkzio eta Analisisiko zuzendariordeari dagokiona izango da, aplikatzekoa den araudian urtero onartzen diren zenbatekoen arabera.

Hirugarrena.– Izendapen honek 2026ko urtarrilaren 16tik aurrera izango ditu ondorio ekonomikoak eta administratiboak.

Laugarrena.– Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke eman duen organoari, hilabeteko epean, jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke bi hilabeteko epean, jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko urtarrilaren 15a.

Eustat-Euskal Estatistika Erakundeko zuzendaria,
BELEN MUÑIZ VILLANUEVA.